



UDA, 2017: “Disfruta del Plazaola – Plazaola gozatu”

Plazaola Partzuergo Turistikoak, zerbitzu turistikoak eskaintzen dituzten bere enpresen laguntzarekin, 2017 udarako 14 bisita eta ekintza turistiko eskaintzen ditu.

Datorren uztailetik aurrera, Plazaolaren lurraldera iristen diren bisitari guztien eskura egongo da Plazaola Partzuergotik udako oporretan zehar gozatzeko eta ikasteko gomendatzen ditugun jarduera eta zerbitzu ugarietako aukera zabala. “Disfruta del Plazaola – Plazaola gozatu” izenburupean, bisitatzen gaituzten pertsona guzti haietzako gustoko eta asetzeko modukoak izango direlakoan, datorren udarako hainbat bisita eta zerbitzu ezberdin prestatu eta aukeratu ditugu. Mota eta gustu guztietakoak daude.

Gainera, herri eta udalerrri ezberdinetan antolatutako **ekitaldi eta jardueren eskaintzak**, gure inguruneaz, ondareaz, jendeaz eta kulturaz gozatzeko osagarri ezin hobea osatzen dute.

Udako nobedadeak: maitagarri eta sorginen artean aritzeko “scape room”-a eta ibilbide gidatuak naturan

Uda honetan, Plazaolaren inguruneak hiri inguruneetan batez ere arrakasta nabarmena izaten ari den jarduera berri batekin kontaktzen du. “**Scape room**” izeneko gelei buruz ari gara, azkartasuna aplikatuz eta bereziki taldean lan eginez, gela bat edo hainbat geletatik ihes egitean datzan erronka. Kasu honetan, ingurunea ez da batere hiritarra, baizik eta maitagarriz eta sorginez betetako mundu sorgindua ezkututzen duten harizti eta pagadi handien erdian kokatua dagoen herri txikia dugu eszenatoki, Orokietan hain zuzen ere (Sala Enigma Basaburua). Bertan, parte-hartzaileen abilezia proban jarriko dute hainbat froga eta asmakizunekin.

Gainera, Nafarroako Gobernuak bultzatu dituen **ibilaldi gidatuen programaren** barruan, Plazaolako zonaldeak mendi ibilaldien eta ingurune naturalen zaleak direnentzat ezinbestekoak diren 3 bisita hartzen ditu bere baitan. Gure paisaiak eta balio naturalak modu didaktiko eta atsegin batean ezagutzeko aukera ematen duten gida batez lagundutako bisitetan datza. Aipatutako bisitak honako hauek dira: Putreen balkoia, Irurtzun eta Arakil artean eta Iribasko Larraun ibaiaren iturburua (Larraun) MIRUA enpresarekin eta, bukatzeko, Orgiko basoa, Garrapo enpresarekin.

...finkatutako eskaintza batera gehitzen dira, udan zabaldu egiten dena...

Plazaolak, gainera, bisitak eta jarduerak eskaintzen dituzten beste establezimendu eta toki ederrak ditu. Hauek gure zonaldeko ezaugarri eta baliabide esanguratsuenak sakonki eta era dibertigarrian ezagutzeko aukera ematen dute; besteak beste, gastronomia, oihiturak, natur bidea, natur guneak, ondare arkitektonikoa, etab. Zerbitzu hauek urtean zehar eskaintzen badira ere, udaran, ordutegia eta arreta zerbitzua luzatzen dituzte.



Mendukilo Kobazuloak (Astitz-en) eta **Orgiko Basoak** (Lizason), balio eta edertasun handiko naturgune hauetatik bisita gidatuak eskaintzen dituzte. Bereziak eta bakarrak dira ere **Peru-Harri Parkea** eta **Lesakenea** (biak Leitzan), bertan bisitariak Euskal Herriko herri kirolen mamia bizi baitezekete. Gainera, Lesakenean, orein askeak daude eta bisita oso bitxia da. Gastronomia arloan, idiazabal gaztak protagonismoa dauka zonaldean. Etxarri (**Bikain**), Uztegi (**Antsonea**) eta Baraibar-reko (**Anatxonea**) baserrietan produktu hau nola egiten den ikasi daiteke eta, jakina, gazta daztatu ere. Gaztatik esnera joango gara; behi-esnera hain zuzen. Arakilgo Etxeberri herrian, **Lacturale** esnetegiak bisitak eskaintzen ditu non bisitariak esnea nola biltzen den, nola jorratzen den eta nola hainbat produktu bihurtzen den ikas dezaketen. Hau guziaz, familientzako oso aproposa den giro ludiko, dibertigarri eta didaktiko batean.

Zonaldeko gastronomiak beste produktu gozo-gozo bat eskaintzen du ere: ezitia. **Ezkurdi Erlezaintza museoak** erleen munduaren sekretuak erakusten ditu, eztiaren nola egiten den azalduz, zeintzuk diren eztiaren ezaugarriak eta onurak deskubrituz, etab; eta, jakina, bertan egindako ezti gozoa dastatu daiteke.

Aisia eta kirola uztartuz, golf-a praktikatzeko aukera paregabea dago Lizasoko **Picht&Putt** zelaian, familia giroan eta oso era atseginean. Benetan, sorpresa ederra golf-a ezagutzen ez dutenentzako.

Kirolak eta aisiak bat egiten dute ere Plazaola Natur Bidean. Lekunberriko Plazaolako tren geltokiko **“Kantinak”** bizikleten alokairua eskaintzen du natur bidetik ibiltzeko era ederra izanik. Gainera, behar duenarentzat, **“bilketa”** zerbitzua ematen du. Geltokian bertan, ikus-entzunezko eta erakusketa baten bidez, Plazaola eta Natur Bidearen historia ezagutzeko aukera dago.

Azkenik, artea, historia, erlijio erritua eta kondaira batzen dira **Done Mikel Aralarkoaren Santutegi** ederrean. Bertan, bisita gidatu interesanteak eskaintzeaz gain, egundoko bista panoramikoekin gozatzeko aukera dago, lau haizetara.

Udako eskaintza honi buruzko informazio gehiago lortzeko (kontaktuak, ordutegia, egutegia, etab), **Lekunberriko Turismo Bulegora deitu daiteke:** (Telefonoa: 948 507 205 / oit.lekunberri@cfnavarra.es / plazaola@plazaola.org / www.plazaola.org)

Bi informazio gune berri zonaldean

Leitzako udalak, udal plazan bertan, udaletxe ondoan, dagoen informazio gunea berri egin du. Erakustokiak hobetzeaz gain, erakina irisgarriago egin du hainbat aldaketa eginez: iristeko aldapa, seinalaketa berezia, apal irisgarria, etab. Informazio gune hau urte osoan zehar irekita egoten da, eta bertan Plazaola eta Leitzako establezimenduen promozio materiala eta informazioa eskuragai dago.

Bestalde, **Sakanako Mankomunitateak** bi turismo informazio gune sustatu ditu uda honetarako. Bat Altsasun, eta bestea Done Mikel Aralarkoaren Santutegian. Azken honetan, bai Sakana bai Plazaolako eskaintza turistikoaren inguruko informazioa emango da. Bi erakundeak, Sakana eta Plazaola hain zuzen, elkarlanean ari dira informazio gune hau bultzatzeko asmoan, baita produktu berriak eta



promozio ekitaldi berriak sustatzeko ere, batez ere, amankomunean dituzten toki eta baliabideen ingurukoak.

Hainbat ekitaldietako programa.

Uda honetarako ekitaldien programa festa eta zenbait jardueretan zabala da, baina, gainera, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Arakil, Areso, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberriko Udalen laguntzarekin bisitariarentzako erreferentzia diren ekitaldi batzuetan antolatzen eta/edo laguntzen du. Horrela, uztaila eta iraila artean ospatuko direnen artean, garrantzizkoenak hauek dira:

- **Imotzko xenden eguna:** Imotzko herri guztiak elkartzen dituen xendetatik ibilbidea. Paseoak, musika, aperitiboa... Aurten Goldaratz-en ospatuko da uztailaren 25-ean.
- **Lekunberriko Antzinako azoka:** Artisau merkatua, dantzak, musika, txontxongiloak, malabareak, etb. izaten diren festa tradizionala. Abuztuaren 6an izango da.
- **Aresoko Mendi Martxa:** Areson hasi eta bukatzen den mendi martxaren 9. edizioa. Irailaren 3an
- **Plazaolako bide berdearen XI Maratoi Erdia eta II Maratoia:** Irteerak Leitzan eta Lekunberrin, biak Andoainen bukaera dutelarik. Irailak 17.
- **Leitzako Talo Eguna:** Artisauak, talogileak, musika, umeentzako jarduerak, etb... Leitzan ospatuko da irailaren 17an.
- **Arakil-Irurtzun-go Bertoko Abere Azoka:** Abere eta artisautza azoka Irurtzunen (Irailak 17)
- **Lekunberriko Sagardo Eguna:** Sagar mota ezberdinen erakusketa, "kirikoketa"-ren erakustaldia eta sagardoaren dastatzea. Irailak 24.

Lekunberri, 2017ko ekainaren 29a